



ELKARRIZKETA: UTZUNE URRIZALKI, GAZTEAK AGINTEAN

# Arrasate

P R E S S U

1999ko  
irailak 24  
464. zenb.



## ATB berriztuta

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • KULTURA ELKARRIZKETA: ARANTZA ETA PANTO  
EUREN IKUSPUNTUTIK: JOSEBA INTXAUSTI • KIROLAK: NESKEN FUTBOL TALDEA

# Ofiziale Elkarteen Gida

## Elektrizitatea

- Aranzabal Koop. E.  
Zerkaosteta, 15 ..... ☎ 943 79 68 21 / 670 57 53 83
- Arrasate Elektrizitatea  
Gipuzkoa etorbidea, 37 ..... ☎ 943 79 65 93

## Eraikuntza enpresak

- Berecibar  
Santamaina, 34 ..... ☎ 943 79 09 63

## Errotulazioa

- Pando errotuloak  
Gipuzkoa etorbidea, 6 (Legarre) ..... ☎ 943 79 79 70

## Igeltzaritza

- Izcue Irurzun  
Munar, 6 ..... ☎ 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Igeltsoak - Apaintzea

- Pako eskaiolak S.L.  
Markulete, 14 ..... ☎ 943 77 08 21

## Iturgintza

- Aretxabaleta  
Durana, 16 behe (Aretxabaleta) ..... ☎ 943 79 17 53
- Egia iturgintza  
Gipuzkoa etorbidea, 39 behe ..... ☎ 943 77 01 85
- Txorrota  
Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea ..... ☎ 943 77 17 13 / 607 26 04 17

## Margoak

- Apain  
Matiena, 3 - 1 ..... ☎ 943 79 61 56 / 689 04 91 17
- JOVI  
Ferrerias, 36 behe ..... ☎ 943 79 12 87
- Serafin margoak  
Ferrerias, 14 ..... ☎ 943 79 94 00 / 639 41 50 73

Gida honetan azaldu nahi baldin baduzu, deitu 943 71 23 91 telefonora.

# Denborak aldatzen dira

**D**enborak aldatzen doaz. Bizitakoaren errebasoa egitea baino ez dago berrikuntzak ikusteko, aldaketez jabetzeko. Bizitako hori guztia oroimenean gordetzen dugu... bihotzean gordetzen dugu... eta argazkietan ere gordetzen dugu. Horietan barrena egin genuen atzerantzko ibilbidea joan zen asteburuan, familian bilduta, noizean behin gehienok egin ohi dugun lez. Gutako bakoitzaren oroimenean arakatu genuen, gaudenon eta joan zitzaizkigun historia, istorio eta bizipenak, zortearen kolpeak, irriak eta aitortu gabeko malloak berpiztu genituen gogoan.

Denborak nola aldatzen diren ondo ikusten da horrelakotan: ohiturak, modak... Azken hori, moda, alegia, oso aproposa da



Karmele Perez

## “Moda oso aproposa da denboraren ibilbide ziklikoaz konturatzeko”

denboraren ibilbide ziklikoaz konturatzeko, iragandako oro itzultzen baitu denborak, aurpegia garbituta edo kolorez pintatuta badakar ere. Ez zen, bada, lezio txarra izan irri eta malko artean egindako errebasoa.

Denborak nola aldatzen gaituen ere izan genuen mintzagai. Izan ere, udaberriak udarako edo udatik udazkenerako ibilaldian hartu eta utzi ditugun bereizgarriak hamaika izan baitira, denborak gudan margotzen dituen formak eta koloreak askotarikoak baitira. Gu eta gure bizitza urteetan zehar osatzen doan margolana bailitzan ikusi nuen, kolore beroak eta hotzak, alaiak eta tristeak uztartuz osotzen dena.

Baina badago gauza bat denborak aldatu ez duena eta belaunaldi guztietan ikusi nuena: begietako distira. Eta distira horrek bere baitan gordetzen du

gauza berriak ikusteko, ikasteko eta egiteko ilusioa, munduarekiko jakinmina. Aldaketa, nonbait egotekotan, hemen beharbada: umetako distirak gauza handiak zituen amets, nagusitako distirak gauza txikietan handitasuna ikusteko eta gozatzeko ahalmena ikasi du. Denborak eta eskarmentuak eskainitako lezioa hori ere.

Lehena eta oraina malko isil eta algara zaratsuen artean uztartu zitzaizkigun gela hartan, film bat bailiran. Bizitza eta historia guztiak ez dira, bada, tragikomedia baten eredu?

Baina ez genuen etorkizunaz hitz egin; beharbada lauso artean ikusten delako, beharbada ikasi dugulako oraina eraikitzen nahikoa lan dugula, denbora azkarregi igarotzen dela eta momentua gozatu ezean, ihes egiten digula. Eta, denbora gure inguruan jauzika zebilela, horixe egin genuen: momentuaz gozatu, elkarrekin barre egin, elkarrekin gogoratu.

Ez dakit denboragileak denbora berriak prestatzen ari ote diren. Baina datorrena datorrela, ona izango ahal da denontzat!

“Ur fresko eta pizgarria gertatzen zitzaigun erbestetik zetorkigun Zaitegiren Euzko-Gogoa”

Joseba Intxausti

# 34

## urte egin zituen On Jose Mariak Arrasaten

1942an etorri zen On Jose Maria Arizmendiarieta Arrasatera, 26 urte zituela. Gerra Zibilak bitan banaturiko herri bat aurkitu zuen: galtzaileak eta irabazleak. Artean Jose Maria Ormaetxeak 14 urte baino ez zituen.

ITURRI ONETIK

## On Jose Maria gogoan

Madrilgo Unibertsitate Autonomoak liburu bat aterako du “Espainiako 100 enpresariarik garrantzitsuenak” izena eramango duena. Proiektuaren zuzendariak On Jose Mariari buruzko sei orrialdeko artikulua bat eskatu dio Jose Mari Ormaetxeari.

Bera adineko gizona zela eta Arrasateko kooperatibak takian potian Madrileraino joan beharra zuten enpresa sendoak, nahiago izaten zuen autoestopez joan, inori ezer eskatu barik. Batekin Gasteizera; gero, Mirandara... eta horrela, Madrileraino.

Egun hotz batean bi kooperatibistak Mirandako gasolindegian ikusi zuten hatzamarra ateratzen, bere sotana eta guzti. “Baina, baina, guk eramango zaitugu Madrileraino”, esan omen zioten harriritu apaizaren apaltasunarekin. Hil zenean ez omen zuen ezta txakur handirik ere.



ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89 E-mail: arrasatepress@euskalnet.net Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Joxe Aranzabal. Kazetariak: Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. Publizitatea: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroizabe. (Tel.: 943 71 23 92). Administrazioa: Maite Urriolabeitia (Tel.: 943 71 23 90) Diseinua: Maddi Trubuelo. Asteburuetako berriemakaldea: Monika Belastegi. Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. Banaketa arduraduna: Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.400. Logo-Gordailua: 112488. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oriati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldi-zikloaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailearen laguntza

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 24**  
• Español, Iturriotz
- Larunbata, 25**  
• Korkuera, Musakola
- Igandea, 26**  
• Irizar, Erguin
- Astelehena, 27**  
• Amezua, Santa Marina
- Astearte, 28**  
• Zabala, Zarugalde
- Asteazkena, 29**  
• Ruiz, Maala
- Osteguna, 30**  
• Morales, San Andres

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Iguatorialdea ..... 943 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) ..... 943 79 39 00  
(emakumeak) ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

### Gurutze Gorria

Bergara ..... 943 76 55 76

### DYA

Antzuola ..... 943 78 71 57

### Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak) ... 943 03 53 00  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea ..... 943 03 53 52  
• Kanpoko kontsultak: ..... 943 03 53 11  
• Fax zenbakia: ..... 943 03 05 14  
Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
Aramaiio ..... 945 45 51 16

### Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

### Udaltzaingoa

Oñati ..... 943 78 04 11  
Bergara ..... 943 77 91 06  
Arrasate ..... 943 79 14 39  
Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
Eskoriatza ..... 943 71 44 07

### Ertzaintza

Arrasate ..... 943 79 71 99

### Suhiltzaileak

Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44  
..... 943 79 76 78

### Garraioak

Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Monterron liburutegia

Monterron ..... 943 77 01 05

### Irratia

Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## HAIZEAREN INDARRA

**G**uri ezertxo galdetu gabe eta ia ezeren berri eman gabe, gure herria, Eskoriatza, hainbat puskatan zatitu nahi dute. Batetik Eibar-Gasteiz autobidea; bestetik Lastertasun Handiko Trena eta, hori guztia gutxi balitz, orain Eskoriatzako parajerik ederrenetakoan zentral eolikoa jarri nahi digute.

Argi utzi nahi dut eskoriatzarrok ez diogula Euskal Herriaren garapenari oztoporik jarri nahi, baina epe laburrean gure herrian nabarmen eragingo duten proiektu guztietan modu zuzen eta irekian parte hartu nahi dugu. Interesatu zuzenak garen heinean, gertaerak gertatu aurretik ezagutzea eskatzen dugu, eta ez ostean.

Elgeako zentral eolikoari dagokionez, esan beharra dago Eskoriatzako Udala lan eta jardueretako udal lizentziak emateko etenaldian dagoela, hirigintza antolaketa berriaren ondorioz. Dena den, Eolicas de Euskadi S.A. enpresak aurkeztutako proiektua aztertu dugu eta hainbat gorabehera antzeman ditugu, esate baterako Eskoriatza eta Barrundia udalerrien arteko muga banaketa; hori, azken finean, Gipuzkoa eta Araba arteko probintzia banaketa ere bada.

Halako tamaina eta garrantzia duen proiektu batek ekonomian biziki eragiten duenez, hasiera-hasieratik lurralde mugak ondo definituta egotea nahi izan dugu. Horregatik Eskoriatzako egungo Udal Korporazioak, Barrundiako

udal ordezkariak jakinarazi ondoren, urbanaketaren marra zehatza ezagutzeko lurraren egiaztapena, edo replanteoa, egin du.

Egiaztapen horren emaitza honako hau izan da: lehenengotan Eskoriatzako udalerrian ikututako lurak 34.310 m<sup>2</sup> ziren, orain, berriz, 61.111 m<sup>2</sup> direla egiaztatu dugu. Datuak hor daude, ez dute komentariorik merezi.

Nik, eskoriatzarra naizeenez, zentral eoliko horren perimetroak zenbat m<sup>2</sup> dituen eta horietatik Eskoriatzakoak zenbat diren jakiteko eskubidea dudala uste dut.

Azkenik, esan nahi dut, nire ustez proiektua egiten hasi aurretik definitu behar zirela hainbat eta hainbat gai; azpimarratu nahi dut, gainera, ia guztiz industrializatutako Euskal Herri honetan izugarrizko balioa duela Elgeako Mendilerroak paisajeari, naturari eta arkeologiari dagokienez. Horregatik, *a priori*, Zentral Eoliko hau egitearen aurka nago.

*Josu Azkarate*

*Ingurugiro zinegotzi arduraduna*

## LORE JOKOAK DIRELA ETA

**A**stekari horretako zuzendaritzara jotzea erabaki dugu, hilabete honetako 10eko datarekin, 462. alean Aramaioko Lore Jokoen ehungarren urtegarrenari buruz

argitaratutako artikulua dela eta, zeinetan azaltzen baitira 1899. urtean egin zirenen nondik norakoak eta esanahia. Artikulu horretan bertan ematen da, halaber, gure udalak urteurrena ospatzeko antolatuta dituen ekitaldien berri.

Idatzi horretan, ordea, ezusteko desatsegina ikusi dugu, izan ere 99/09/26an egitekoak diren ekitaldietan ez da aipatzen Meza, orain dela ehun urte Don Bixente Goikoetxea aramaiotar musikari handiak abagune hartarako konposatua eta gure abesbatzak orkestraren laguntzaz abesturik, estrainekez entzun ahal izango dena. Aipatzeke geratu zen, baita ere, B. Goikoetxea Abesbatza ere Aramaioko Seme Kuttuntzat omendua izango dela, beste batzuen artean.

Eskertuko genuke hurrengo alean hutsune horiek argitzea; horretarako bidaltzen dizkizuegu udalaren egitarau nagusia, ekitaldi guztiak azaltzen dituen, mezarena bereziki, Goikoetxeak konposatzerakotan izan zituen gorabeherekin, baita ere udalaren adierazpena abesbatza Aramaioko Seme Kuttun izendatuz.

Gure eskariak abegi ona izango duelakoan, adieitasunez agurtzen zaitugu.

*Juan Jose Pol Ibae*

*B. Goikoetxea abesbatzako lehendakaria*

*Sili Sili*

**Martxa eta estilo handiko arropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikari erakusketa**


Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82

**M**

**MEMESA**

**Industria hornidurak**

**Tel. 943 71 24 25**




SAIOA GIMNASIOA

Kontzeziño, z/g, tunela • ARRASATE • Tel: 943 79 97 31



## Zatoz instalazio berriak ikustera



- Karatea • Arte martzialak • Fitness •
- Muskulazioa • Mantenitze soinketa • Sauna •
- Masajea (berria) • Solariuma (berria) • Estetika zerbitzua (berria) •
- Aerobic (haurrentzat eta helduentzat),  
Step, salsa, funky... Goizez eta arratsaldez



Ez galdu  
aukera  
hau!

# Euskaraz irakurri?



**Uste duzun baino errazagoa da.**

Euskaraz irakurtzen trebatzeko  
50 orduko ikastaro berezia  
eta Egunkariaren 3 hilabeteko harpidetza

**12.000**

pezetaren truke

**Egunkaria**



Galdetu zure herriko euskaltegian

# Isildu egin beharko lirateke parrokiako kanpaiak gauez?

*Eztabaida sortu da kalean bizi direnen artean, gauez hots handia ateratzen dutelakoan.*



**Karlos Uribarren**  
(42 urte)  
Langilea

Jendea kexatzen hasiz gero, bai, baina galdeketa bat egin beharko litzateke.



**Victoriano Fdez. de Pinedo**  
(57 urte)  
Erretiratua

Jotzen segitu beharko luke, orain arte moduan.




**Tere Conde**  
(32 urte)  
Langilea

Jende askori enbarazu egin ez gero, ixildu egin beharko lirateke, baina horregatik kexatzea gehiegizkoa da.



**Eusebio Gonzalez**  
(31 urte)  
Langilea

Bizilagunek ere beren eskubidea dute, baina gehiegizkoa ere bada horregatik kexatzea.



**Santos Zeziaga**  
(74 urte)  
Erretiratua

Kanpandorrea parez pare eduki arren, ez dit eragozpenik sortzen. Ez dago kexatzeko arrazoirik.



**Celsa Medina**  
(46 urte)  
Langilea

Niretzat ez da eragozpena. Munarren bizi naiz eta ez ditut entzuten.



**Ainara Garmendia**  
(21 urte)  
Ikaslea

500 urtean jotzen ibili eta gero, ez du zentzu handirik orain aldatzeak.



**Maite Arriaran**  
(33 urte)  
Langilea

Iturriotz kalean bizi izan naiz orain arte eta ez dit trabarik egin. Ixilik egon direnean faltan sentitu ditut, gainera.

**HIES**  
**EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiraletan  
Setatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

*Sagardotegia*

**ITURROIETA**

Arraga auzoa  
Tel.: 945 44 53 85  
ARAMAIO

**LEKIN**  
**Ile apaindegia**

Marixutarako orrazkera  
bereziak

**Prezio bereziak!**

Erguin, 15. Behea  
Tel.: 943 79 80 23

USTEAK USTE

*Jokin Zaitegiren hilobia non?*

**J**oan den astearte-an On Jose Maria Arizmendiariaren gorpuzkinak Aldaiko hilerritik San Kristobalekora eramán ziren, Euskadiko Kutxaren aginduz, kooperatibak goikoan egin duen panteoira.

On Jose Maria handia Aldain lurperatu zuten, Jokin Zaitegi handiaren ondoan. Biak mugarri izan dira herri honen historian: batek euskal kooperatiben mugimendua abiatu zuen, besteak beste, eta besteak bere onenak eman zituen euskara goren gradura igotzeko. Biak bateratsu hil ziren, hiru urte gorabehera.

Orain, ordea, zerbait bitxia gerta daiteke. On Jose Mariak badu nor arduratuko den bere lanaz eta bere irudiaz: Euskadiko Kutxa. Horrela da eta seme on guztiek bezala, Euskadiko Kutxak bere sortzailearen aldeko guztia egin beharko du.

Nor arduratuko da, baina, Jokin Zaitegiz? Non geratuko dira haren gorpuzkinak? Arrasatek badu interesik beste seme kuttun horren oroitzapena gordetzeko eta lantzeko? Zer dio udalak?

Joxe Aranzabal



Zaitegi, argi goiztarra

\* Joseba Intxausti

**N**ire Zaitegirekiko oroitzapenak hona biltzeko eskatu didate Arrasateko adiskideek. Hona, ba, gomuta batzuk, laburtuta.

Gaztetako *Tori Edontzia* olerki hura bezala (1934), *Goldaketan* ere (1946), gerrako umeoi berandu iritsi zaitzaizkigun, baina Zaitegiren bestelako lanak garaiz heldu ziren: 1955etik aurrera, Erriberri/Oliteko frantziskotarren Barnetegian.

Garaiko liburu ekoizpena oso urria zen Euskal Herrian (27 liburu urte hartan), eta euskal kultura aldizkariak bi ziren batez ere: Donostiako *Egan*, eta Guatemalako *Euzko-Gogo*a.

1955eko irailetik aurrera, Filosofia ikasketei hasiera ematean izan nuen aukera azken honen ale zahar eta berriak irakurtzeko. Bi balio kultural erakusten zizkigun gazteoi *Euzko-Gogo*a: euskaraz gai berriak erabiltzeko ausardia, eta kultura jasoa euskara hutsean nola eman.

Bestalde, euskararen

etorkizuna Unibertsitatea irabaziz segurtatuko zela esaten zitzaigun. Sinetsi, nik ez dakit halakorik benetan sinesten genuen, baina nahi, gogo osoz nahi genuen hori. Jasotasun horretara igo nahirik saiatu ginen orduan Erriberri hogen bost urte luzetan iraungo zuen *Gure Izarra* urtekari literario-filosofikoa euskaraz ematen (1959-1975).

Ur fresko eta pizgarria gertatzen zitzaigun erbestetik zetorkigun Zaitegiren *Euzko-Gogo*a. Laster lan berrietan sartu zen hainbat gazteri oso barruan geratu zitzaion lan mezua pasa zion Zaitegik, orduan.

“ Ezer egitekotan, gure herri nortasuna hizkuntzaren ardatz inguruan eraiki behar zen ”

Aldizkari-bildumako 3.658 orrialdeetan denetik aurkitu genuen, euskaraz idatzita. Literatura, eta giza zientzietako beste alorrak ere: Filosofia, Erlijioa, Arte Ederra, Etnologia, Soziologia, etab. Natura Zientzien mundua ere aztertu zen aldizkarian eta alor horretan, batez ere 1970etik aurrera egingo zenaren aitzindaria gertatu zen.

Euskalgintzara 1956-1964.etan iritsi zen gazteriaren parte on bati, etsenplu begiragarri bat jarri zion aurrean Zaitegik, pertsonalki eta bere lankideen lanez.

Ezer funtsezkorik egitekotan, gure herri nortasuna hizkuntzaren ardatz inguruan eraiki behar zen, Jokin ustez. Komentzimendu hori tarteko, 1949an zera idatzi zuen: *bere izkera galdu dun erriak erri berri eta zindoan artean bizitzerik ez du artzen.*

Garaiko belaunaldi gazteak ongi ulertu zion esandakoa eta geroko euskalgintzaren kontzientzia hori, lanerako grinarekin lotuta joan den gogo, Zaitegiri ere zor izan diogu, geroztik euskarazko kulturagintza sustatzean.

\*Idazlea

**GANBARA**

Enmarkazioak    Arte ederretako materiala  
Laminak            Arte lanak (margo lanak)

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37 • 20500 ARRASATE

**BASABE JATETXEA**

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABAETA



Argibideak eta matrikula:

# ERDU AEH

Garibai etorbidea, 14 - 3.

Tel.: 943 77 03 69

## EUSKARA IKASTARROAK

Maila guztiak

EGA eta  
ALFABETATZEA

Matrikula epea: irailak 29

- Udalaren laguntzaz
- Beka sistema

# IZENA EMAN DEK-N

ikasteko zentru eta barnetegiak

**24**  
ostirala

**25**  
larunbata

■ **ZINEA**

*No respites*, Alai zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

■ **"NOBENARIXUA"**

Maritxu Kajoi Komisiñuak antolatutako "Nobenarixua" egingo da 18:30ean Maritxupeiian. Errioxako ardoa eta gazta dastatzeko aukera izango da.

■ **KONTZERTUA  
JAM ARETOAN**

Bergarako Jam aretoan *Etsaiak*, *2kte*, *Brutal Melodi* eta *Likidillo* taldeen kontzertua izango da, 22:00etatik aurrera. Sarrera 1.500 pta.

■ **SAN MIGELAK  
ARETXABALETAN**

23:00etan *Tirri Tarra* Pasai San Pedroko fanfarrea arituko da kalean.

■ **ZINEA**

*No respites*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ **SAN MIGELAK  
ARETXABALETAN**

13:00etan Mañukorta eta Iturriaga bertsolarien saioa. 14:30ean, herri bazkaria. 22:30ean, San Migel bolo txapelketa. 23:00etan *Xuate* taldearen dantzaldia. 23:00etan pilota jaialdia, Iturrigorriko pilotalekuan.

■ **ZENUREN OMENEZ**

Zenun zenaren omenezko kontzertua eskainiko dute gaztetxean. 18:00etatik aurrera *Anti-Social*, *Arkada Social*, *Enboskada*, *Des-Kontrol*, *Anger*, *Kañeria 13*, *Eskizofrenia Rock*, *Offset* eta *Numen* taldeak arituko dira.

■ **EUSKAL PRESOAK  
EUSKAL HERRIRA**

Aretxabaletako Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak bilkura ixila egingo du Aretxabaletako plazan. Hitzordua 20:30ean. Amaieran bertso saioa egingo da.

■ **MOTOKROS  
TXAPELKETA**

Arrasateko Motorzale Taldeak motokros txapelketa egingo du 17:00etan, Mojatetik zelaian. 5-12 urte bitartekoek 200 pta eta 12 urtetik gorakoek 600 pta ordainduko dute sarrera. 943 79 68 31.

**26**  
igandea

**27**  
astelehena

■ **ZINEA**

*No respites*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ **MEZA SAN  
ANDRESEN**

Angel Ipiñak biatoristak esango du 13:00etako meza San Andreseko elizan. San Andreseko Eukaristia taldeak aurrez eskertu nahi du bertaraztea.

■ **LORE JOKOAK  
ARAMAION**

Ikus 34. orrialdea.

■ **ZINEA**

*No respites*, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30ean.

**28**  
asteartea

■ **ZINEA**

*No respites*, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30ean.




**Udazkenari  
ongi torria  
emateko...**

...astelehenetik  
asteazkenera %10eko  
beherapena edozein  
zerbitzutan.

**Ez daukazu aurretik deitu  
beharrik. Zatoz!**

**Gorbea kalea • Tel.: 943 77 09 44 • ARETXABALETA**

**Ludotekarako  
eragilea  
behar da  
Txatxilipurdin**



**Kontuan hartuko da:**

- Euskara maila
- Esperientzia haurrekin
- Ikasketak
- Begirale titulua

Curriculumak irailaren 30a baino lehen bidali Txatxilipurdi Elkartera:  
**Txatxilipurdi Elkartea**  
Pablo Uranga, 4 behe • 20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 54 46 • Faxa: 943 79 74 01

### ■ GUDARI EGUNA

"Egoera politikoa aztergai" izenburua duen hitzaldia izango da Arrano elkarteak, 19:30ean.

### ■ ZALDIBAR FUTBITO TXAPELKETA

Iazko txapelketan aritu ziren taldeek jarri zuten fian-tza jasotzeko aukera izango dute. Horretarako pasa Arra-notik 18:00etatik 19:30era.

### ■ MENDI IRTEERA

Mendi irteera antolatu du Besaidek San Maurizio-ko parkera, urriaren 9tik 12ra bitartean. Izen ematea irailaren 28tik 30era bitartean egongo da zabalik, Besaideren egoitzan.

### ■ KILOMETROAK 99

Debagunek autobusak antolatu ditu Erreterian egingo den Kilometroak 99ra joateko. Urriaren 3an izango da. Izena emateko AEDra deitu (943 77 12 28 edo 943 71 21 17).

### ■ IRRATI IKASTAROA

Erredakzio eta esatari-tza ikastaroak antolatu ditu Gazte Bulegoak. Eskolak urriaren 6an hasiko dira. Saioak asteaz-kenero 18:00etatik 20:00etara, Arrasate Irratian.

### ■ EUSKAL DANTZAK

Hamabost urtetik gorakoei zuzendutako euskal dantzen ikastaroa antolatu du Gazte Bulego-ak. Eskolak Lore Gazteak taldeko dantzariak eskaini-ko dituzte. Saioak urriaren 8an hasiko dira.

### ■ PERKUSIO IKASTAROA

Perkusio ikastaroa antolatu du Gazte Bulego-ak, hastapen eta sakontze mailetan. Irakaslea Iñaki Bruña izango da eta eskolak Gazteluondo ikastolan izango dira. Argibideak, 943 77 00 65.

### ■ ARGAZKI LEHIAKETA

Gazteria eta Emakume Sailak, "Gazteak eta 2000 urtea" X argazki lehiaketa antolatu du, ASA taldeare-kin batera. Lanak aurkezte-ko epea urriaren 8an amaituko da. Sariak 75.000 eta 50.000 pta.koak izango dira. Argibideak, Udaleko Gazte Zerbitzuan edo 943 77 00 65 zenbakian.

### ■ ESKULAN IKASTAROA

EKINek eskulan ikasta-roa antolatu du. Erdialdean eta Garagartzan izango da, asteartero, irailaren 28tik abenduaren 14a arte. Argibideak, 943 77 12 28 zenbakian.

### ■ ARRASATEKO YOGA ELKARTEA

Yoga, masajea eta gimnasia energetikoko ikastaroak antolatu ditu

Arrasateko Yoga Elkarteak. Saioak urrian hasiko dira. Interesatuak deitu lehen-bailehen 943 79 35 76ra.

### ■ IGERIKETA EGOKITUA

Egokirolek igeriketa zerbitzua eskaintzen du gorputz, buru eta ikusmen gaitasunik eza eta burmuin lesio zein paralisia dutenen-tzat, bai eta hirugarren adinekoentzat. Edadetuen-tzako igeriketa ikastaroa urriaren 5ean hasiko dira. Argibideak, 943 77 16 677 zenbakian.

### ■ PIRAGUISMO IKASTAROA

Deba Garaiko Manko-munitateak piraguismo ikastaroa antolatu du. Izen ematea irailaren 30ean amaituko da, Musakolako kiroldegian.

### ■ PALA TXAPELKETA

Deba Garaiko pala txapelketan parte hartzeko izen ematea zabalik dago. Interesatuak Musakolako kiroldegira jo dezakete urriaren 7a baino lehen.

# 29

## asteazkena

### ■ ZENBAT GARA? MAHAINGURUA

AEDren Kultura sailak era-tuta, "Lurraldetasuna" izango dute mintzagai Patxi Zabale-tak (EHko parlamentarioa) eta Andoni Esparzak (abokatua). Moderatzaile lanetan Xabier Letona kazetaria arituko da. Saioa arratsaldeko 19:00etan izango da, Monterronen.

# Ez geratu etxean! Zatoz gurekin!

**Irailean:** Eskulanak (erdialdean eta Garagartzan).

**Urrian:** Dantzak (erdialdean eta Garagartzan).

**Azaroan:** Barazkizaleen Sukaldaritza eta talogintza (erdialdean).

Honez gain, hainbat solasaldi ere egongo da.

Argibideak nahi izanez gero, gertura zaituz Pablo Uranga kaleko 4. zenbakira edo deitu 943 77 12 28 telefonora.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:




Eusko Jaurlaritza



ARRASATEKO UDALA

Emakume Sails ■

# Lamiak, harrobiak eta lezegizonak Garagartzan



**Garagartza auzoaz hitz egi-terakoan, toki jakin batzuk etortzen zaizkigu gogora: Leze Txiki, Kobate harrobia eta Fagor Elektresnak lantegia. Horietxek izango baitira seguruenik auzo horretan tokirik aipagarrienak.**

Leze Txikiri esker, On Jose Maria Barandiaran bezalako pertsona famatuak bisitatu dute Arrasateko baserri auzo hau. Eta Kobate eta Fagorri esker, noski, makina bat lagunek irabazten dute eguneroko ogia. Hala ere, baditu auzo honek beste leku eta istorio aipagarri batzuk

eta San Migel jaiak datozela eta, horiei buruz apur bat berba egiteko aprobeztatuko dugu. Horretarako, Garagartzako auzo alkate berriarekin solasaldian aritu gara, Joxe Mari Etxagibeekin, hain zuzen ere.

## LAMIA

Garagartzako plazan, harriz eginiko lamia baten irudia dago. Antzinako istorio batean du jatorria irudi honek. Garagartza lotuta egongo da lamiaren istorioarekin

## ELIZAKO ERRETAULA

Berriztu berria da, orain bi

## ■ 24 OSTIRALA

**19:00:** jaien hasiera. Ikurriñaren igoera eta dultzaineroek alaitutako kalejira.

**22:00** erromeria, Kaixo taldearekin.

**24:00** dantzaldia, lamiei eta Neanderthalei ongi etorria

## ■ 25 LARUNBATA

**12:00** meza, auzoko hildakoen alde.

**12:30** euskal dantza erakusketa, Txikitxu taldearekin.

**17:00** Gorritiren animaliak.

**18:00** irrati bidez kontrolatutako automobilen saria.

**19:00** txikiteoa

**22:30** dantzaldia Hator taldearekin.

**04:00** txokolotada, auzoko gautxorientzat.

## ■ 26 IGANDEA

**12:00** meza nagusia.

**12:30** haurrentzako jolasak. Vermouth dantza.

**14:30** auzo bazkaria. Mus eta Briska finalak.

**18:30** erromeria Txinparta taldearekin.

## ■ 29 ASTEAZKENA

**19:00** San Migelen ohorezko meza.

**19:30** luntxa, Patxixenean.

urte. Urte terdian aritu ziren lanean hura berrizteko Martuteneko Artelekun. Aspaldikoa da, oso. XV-XVI. mende ingurukoa. Egurrez eginikoa, ikusgarria.

## GEROARI BEGIRA

Etxebizitza asko eraikitzen ari dira urteotan Garagartzan. Jendea lasaitasun bila dator Garagartzara, lamien arrimuan, noski.

arreglos

Eroski merkataritza zentruan

**Maritxu Kajoi egunerako soinekoak alokatzen ditugu 6.500 ptatik aurrera**

Osagarriak: poltsak, kapeluak,...

ZATOZ ETA  
AUKERATU  
ZURE  
GUSTUKOENA

Tel.: 943 79 10 43

**JUBAR**  
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

**SUSI**  
ILE APAINDEGIA

- Astelehenetik ostegunera: 12:00 - 19:00
- Ostiraletan: 09:00 - 19:00
- Larunbatetan: 08:00 - 12:00

Garibai, 3 bis • Tel.: 943 79 50 27

Udalekuetan begirale izan nahi duzula?

**Begirale ikastaroa**



18 URTEK GORAKOENTZAT

Matrikulazio epea: Urriak 8

Argibideak: 943 79 54 46 eta 943 77 17 39

Pablo Uranga, 4 behea • ARRASATE

Zatoz **Txatxilipurdi Elkartera**

# GARAGARTZAKO SAN MIGELAK

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

IRAILAK 24, 25,  
26 ETA 29

**Ante**  
garajea

TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK

Garagartza  
auzoa, 9  
Tel.: 943 79 82 59



*Elizondo*  
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99

**Armairuak, hormako armairuak,  
ateak, oholtzak, leihoak etab.**



**AROSZTEGIA  
LAGUN**

Garagartza auzoa, 5 2º  
(Bixiena Baserria) • ARRASATE  
Tel.: 943 77 02 43  
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA  
Tel.: 943 76 08 10

**Belun**  
KAFETEGIA



Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 61 14

**FAGOR**  
ELEKTRATRESNAK



*San Migel jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu*

Garagartza auzoa, 39  
Tel.: 943 77 92 00

- **Ontzi-garbigailuak**
- **Arropa-garbigailuak**
- **Egosketa**

# ETZAZU UTZI



**J**adanik ez zara neskatoa.

Eta uzten baduzu, damu izango zara.

Kirolaren bidez zure gorputza

eta zure adimena aiseago ibiliko dira,

zure adorea biziago

eta zure osasunak oztopo

ugari gaitutuko du.



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla ■

astea bi hitzetan

■ **Aita Menni, santu**

Gehienok Aita Menni ize-na Gesalibar auzoko buru osasunerako zentruarekin lotzen badugu ere, gogoratu beharra dago izen-deitura horien atzean elizgizon handi bat izan zela. Italiarra jaiotzez, San Juan de Dios Ordenako erlijiosoa izan zen. 1859an gerran zauritutako soldaduei laguntza emateko eskaini zuen bere burua.

1914. urtean hil zen Aita Benito Menni Frantzian. 1985. urtean beatifikatu egin zuten eta orain, santutu egingo du Joan Paulo II Aita San-

tuak. Jende asko joango da Erromara Aita Menniren santutzea ikustera. Izan ere, beatoaren izena daraman erakundeak itzal eta ospe handia hartu baitu.

■ **Diru laguntzei ez**

Arrasateko Udalak aurkeztutako hainbat alegazio ez dira onartu. Joan den aste-ko asteleheneko Gobernu Batzordean eman zen honen berri. Gipuzkoako Foru Aldundiak ezezkoa eman die San Frantzisko komentua eta Zerrajerako eraikin nagusia zaharberritzeko

eskatu ziren diru laguntzei.

Eusko Jaurlaritzak ere ez ditu onartu Arrasateko Udalak eta Mankomunitateak aurkeztutako alegazioak. Euskal Herriko Errepideen II Planari egindako alegazioak ziren. Hain zuzen ere, Beasain-Durango errepideari buruzkoak, Maltzaga-Urbina errepide zaharraren konponketari buruzkoak eta Arrasate-Aramaio saihesbideari buruzkoak. Arrasateko alkatearen esanetan, inguruko herrietako alkateek ez dute amore emango gai honetan.



■ **Zaldispeko zubia**

Zaldispe Osinaga izeneko pasealekuko alde biak lotzen dituen zubia ostira-lean jari zuten. 28 metro luze eta 4,20 metro garaia da. Ia 55 milioi pezeta erabili dira zubia egiteko.

Gamei enpresatik zubiraino doan espaloi berri bat ere eraiki da, berdeguez inguratuta. Osinaga aldean ere gauza bera egin da, S. Isidroren datoren pasealekuarekin bat eginez. Orain, azken ikutuak ematea falta da. Lanak urriaren erdian inauguratuko dira.



Leku zoragarria da Aramaio. Ni, behintzat, liluraturik utzi ninduen ikusi orduko. Baina iraganbideetatik aparte dagoenez, euskaldun askok ez du haren ederraz jabetzeko eta gozatzeko aukerarik izan. Azkuek ere Bizente Goikoe-txearen goraipeak entzunaz jakin zuen Arabako leku liluragarri honen berri. (...)

(Datorren igandean) ez da Bizente Goikoe-txea bakarrik omenduko, meza ondoan bost gizon ospetsu izendatuko baititu Aramaio herriko seme kuttun: Pedro Pujana, Sabin Salaberri, Jesus Mari Elejalde, Patxi Uribarren eta Joxemari Velez de Mendizabal.

Horrelako bosteko urrerik herri gutxi, askoz handiagoak ere, azaldu dezake".

**MIKEL ATXAGA**

*Deia,*  
1999.9.21

**Gertu**

**Janari prestatuak**

Maritxu Kajoiko afarian-  
eseri eta gozatu.

Gu arduratuko gara  
denetaz.

Dei iezaiguzu!


Mitarte 10 • Tel.: 943 77 06 12 • Faxa: 943 77 15 82 •  
20550 ARETXABAETA • GIPUZKOA

**Edertu**  
Ile apaindegia






*Maritxu jai  
zoriontsuak*

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28 • ARRASATE



# Spek Denda

Iturrioz, 19 Arrasate Tel.: 943791129





# San Prudentziorainoko bidea konponduko dute

Arrasaten eta inguruetan lan ugari ikusteko aukera izango dugu aurten. Halaxe dirudi, behintzat, aurkeztu diren egintamauak ikusita.

Batetik, San Prudentziorainoko bidea konpondu eta hobetu egingo da. Bihurguneak samurtu, errepidea zabaltu eta San Prudentzioraino biribil bat egingo da. Honetaz gain, Etxezarreta etxalderako zubi berria egingo da eta hor inguruan dagoen bidegorria konpondu. Tavesa lantegira doan bidea ere berriztu egingo da eta baita errepidetik gertu dauden base-rietarako sarrerak ere. Sei hilabete eta ia 500 milioi pezeta erabiliko dira errepide zati hau konpontzeko.

## LAU ALEGAZIO

Hau guztia Gobernu Batzordearen bileran aztertu zen, astelehenean. Gipuzkoako Foru



Laster askatuko da Elorregiko korapiloa.

Aldundiak aurkeztutako egintamua da. Bileran zeudenen artean, erabaki zen egintamua hau, beharrezkoa izateaz gain, egokia ere badela. Hala ere, zehaztasun gehiago eskatzen ditu Arrasateko Udalak eta lau alegazio jarri dizkio. Batetik, Etxezarreta inguruko zuhaitzen balio handia dela eta, lanek haiengan izango duten eragina zehazteko eskatu dio Aldundiari.

Bestetik, Elorregiraino

doan bidegorriari jarraipena ematea eta igarobide bat ipintzea ere eskatu dute.

San Prudentzioraino ipini beharreko biribilari dagokionez, berriz, Arrasateko Udalak beste kokapen bat proposatu du. Eta bukatzeko, lanak egin bitartean zirkulazioa ez etetea eta bi noranzkoak erabiltzeko moduan jartzea ere eskatu du. Alegazioak aztertu eta erantzun ostean, behin-

betiko proiektua egiteko lanak adjudikatu behar ditu Foru Aldundiak. Egindako kalkuluen arabera, udaberri aldean hastea espero da.

## UDALA HIRITARTU

Udalako auzoko elizaldean ere lanean hasiko dira aurten. Besteak beste, bide berria, aparkalekuak eta elizaren aurrealdean plaza bat egin nahi da. Saneamenduak berriztu eta gas propanoa erabili ahal izateko hodiak ere sartuko dira. Elektrizitate eta telefono kableak lur azpitik bideratuko dira.

Lan hauek, goian aipatutakoak bezala, aurreproiektua dira oraindik. Arrasateko Udaleko Hirigintza taldeak eta UR MAR enpresaren artean egingakoa. Orain alegazioak jasoko dira, ostean lanak adjudikatu. Hori guztia egin eta gero, hasiko dira lanean.

## Fagorreko langile bat Taiwanen

Luis de Andres Hong Kongen zegoen joan den astelehenean, lurrikarak Taiwan uhartera astindu zuenean. Fagor Automation kooperatibako teknikariak batez ere Asian egiten du lan. Txartela aurrez hartuta zuenez, hegazkina hartu eta Taiwanera joan zen biharamonean. ATBk telefonoz hitz egin

zuen asteazkenean berarekin. Taichun hirian zegoen, Taipei hiriburutik bi ordu eta erdira. Fagor Automationek hantxe ditu bulegoak, hiriko etxeorraz batean. Lurrikarak direla eta, debekaturik zuten eraikinean sartzea.

Bera ondo zegoen, baina inguruan anabasa omen zen nagusi. Hirian arazorik

handiena argi falta omen zen. Mendi aldean, berriz, lurrikararen ondorioak askoz ere gaiztoagoak izan ziren.

Dena ondo joanez gero, ostegunean hegazkina hartu eta Euskal Herrirantz abiatzeko zen Luis. Irunera hain zuzen ere. Ez ditu erraz ahaztuko Taiwanen bizi izandako egunak.

## Jaiotzak

- Aner Sarabia Landa. Irailaren 6an.
- Laida Conde Martin. Irailaren 13an.

## Ezkontzak

- Jabier Ugartetxe Pascual eta Maria Lourdes Garcia Zapiain. Irailaren 11n. Zibilez.

## Hildakoak

- Ana Hidalgo Garcia. 89 urte. Irailaren 11n.



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •  
Erradapiak • Leihoak • Ateak •  
PVCko leihoak •  
Aluminiozko leihoak •  
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

Erakusketa eta biltegia:  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

## BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

## Termiteak agertu dira Musakolan

Abuztuaren 24an, San Bartolome egunean, Andoni Larizgoitia Arrasateko Udaleko arkitektuak dei bat jaso zuen Musakolatik, esanez Gipuzkoa Etorbideko 47an termiteak-edo agertu zirela. Egun batzuk geroago ikusi zuen zer bait bazegoela.

Arkitektoa Mungiako Tecma enpresarekin jarri zen harremanetan, 47ko etxabea solairua azter zezaten. San Isidro elkarte ere aztertu zuten. Erretiratuen etxean sartu ziren, baina agerian ez zutenez ezer ikusi, ez zuten azterketarik egin.

Azterketak dio 47an termiteak agertu direla eta San Isidro elkartean sitsa handia. Hori dela eta, udalaren Gobernu Batzordeak honako era-



Gipuzkoa Etorbideko 47an, 49an eta 43an azterketak egingo dituzte.

bakiak hartu ditu: Gipuzkoa Etorbideko 47an eta 49an etxejabeek eskatu die bi hilabete baino lehen azterketa sakonagoa egitea, jakiteko termiteek zenbateraino egin dioten kalte etxearen egiturari; S. Isidro elkarteko jabe-

ari ere segurtasun azterketa bat egin dezala eskatu dio; eta Musakolako erretiratuen etxean ere azterketa egitea, badaezpada ere.

Termiteak intsektuak dira, txingurrien itxurakoak, baina zuri-horixkak. Erleen antze-

ra, lau kastatan banatzen dira: langileak, gudariak, hegadunak eta errege-erreginak. Habiak egurrean egiten dituzte. Habia bakoitzean milioika termite bizi liteke. Kaltegarriak izan litezke oso, batez ere kalteak barrualdean egiten dituztelako, kanpotik ezer ikusten ez dela.

Musakolan erreka ondoko agertu dira. Teknikariak beldur dira ea Mondragoeko alde zaharrean ere agertzen diren. Izan ere, San Joan Bataiatzailea parrokian ere agertu ziren zaharberri zutenen.

Horregatik, Mungiako enpresak gomendio bat eman dio udalari: alde zaharreko etxe bat zaharberri aurretik, kontuan har dezala ea termitarik duen.

## On Jose Mariaren gorpuzkinak hilerri berrira

Astearte arratsaldean, hil zela ia 23 urte bete direnean, on Jose Maria Arizmendiariaren gorpuzkinak kanposantu zaharretik atera eta berrira eraman zituen haren familiak.

Leku aldatzea Euskadiko Kutxaren aginduz egin zen, kooperatibetako sortzaileak atsedena izan dezan San Kristobaleko hilerrian prestatu dioten panteoi berrian. Panteoian On Jose Mariaren eskultura bat dago, Lorenzo Askasibar eskultore elgetarrak egin. Hilarriaren gai-



Jesus Mari, Juan Jose eta Pedro, On Jose Mariaren lobak.

nean, esaldi hau dago idatzita: "Bihotza, lana eta bizitza zuten alde emanak".

Juan Jose, Jesus Mari eta Pedro on Jose Mariaren lobek Jose Maria Ormaetxearen


laguntza izan zuten eginkizun horretan. Arratsaldeko bost eta erdietan San Felipe Apostolen beribilean sartu eta hilerri berrira eraman zuten.

Datorren ostiralean, arratsaldeko sei etan, omenaldi txiki bat egingo zaio kooperatiben sortzaileari. Egun horretan, irailak 24, berrogei urte beteko dira Euskadiko Kutxa sortu zela. Arrasateko parrokoak bedeinkatu egingo du panteoi berria.

Goikobalu abesbatzak ere abesti batzuk kantatuko ditu ekitaldian.

... **LILURAT** ...  
**OIHALAK**  
 Denboraz prestatu  
**Maritxurako jantzia**  
 Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 72

Maritxu Kajoi egunerako  
 makilatu eta orraztu  
**3.000** ptatik aurrera  
**ZATOZI!** gure  
 ezustekoa ikustera  
 Maalako Errabala, 21-B  
 ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31



*Jangela, egongela, edo zuentzako nahiz umeentzako logela bat behar baduzu, zatoz Arrasateko TodoMueble Kabiara. Nahi dituzun altzariak, aurkituko dituzu ordaintzeko modurik onenean :*

*24 hilabeteko epea, interesik gabe eta 2000. urteko martxoan ordaintzen hasteko aukera eskaintzen dizugu.*

**Gaur erosi eta  
2000. urteko  
martxoan hasi  
ordaintzen!**

**TODO Mueble** **Kabiá**  
DARIA OIA

**Gipuzkoa Etorbidea, 28  
Tel. 943 79 27 70 • ARRASATE**

**Ordutegia: 10:15 - 13:30 eta 16:00 - 20:00. Larunbatak barne**

# Udazkenean... ATB lora

Urriaren 4an jarriko du abian ATBk programazio berria. Orain arte telebista pantailan azaldu ez diren aurpegiak eta inoiz ikusi gabeko programak ere izango dira tartean: *Gatza*

eta *Berakatz*, *Magazina*, *Guganda* eta *Bertsolaritza*, esate baterako.

Udazkena izanagatik, ATB loran dator, ikus dezakezuen.

**B**etidanik esan izan da euskaldunoi ongi jatea gustatzen zai-gula, eta mondragotarrak ez gara gutxiago izango. Hori dela eta, ATBk programa berria jarriko du abian, ongi jatea eta lapiko zein zartagi artean aritzea atsegin dutenentzat: *Gatza* eta *Berakatz*. Bailarako hainbat jatetxetako sukaldariak hartu dute parte, eguneroko platerak, landuago eta ikusgarriagoak, nola egin erakusteko. Auzo Lagunek Garagartzan duen sukaldean grabatu da programa.

Sukaldari bakoitzak lapi-koari eragiteko modu berezia du, eta zureari beti berdin eragiteaz aspertuta bazaude, aukera polita duzu, egunero 13:35ean.

## HIRUGARREN MUNDUA

Hirugarren Munduarekiko kezka eta jakinahia guban delako jarriko digu eskura Aintzane Gardokik *Guganda*. Bailarako Gobernu Kanpoko erakundeek eta Arkok elkarlanean landu dute programa, eta inguruko elkartasun taldeak ezagutzeaz gain, Hirugarren Munduko egoera erakutsi eta jendea sentsibilizatzea du helburu.

Mundu zabaleko herrialde txiroen errealitatea begi bistan jartzeaz gain, Hirugarren Mundua bertatik bertara ezagutzen duten pertsonen elkarriketak ere egingo diz-

kie Aintzane Gardokik. Elkartasun taldeek eskuartearen dituzten egitasmo eta ekitaldien berri ere emango da. Lehenengo mundutik hirugarren mundura jauzi egiteko parada, beraz, hilean behin, ostegunetan, gauero 21:30ean.

## BERTSO DOINUAK

Baina begiratua urruneko herrialdeetara luzatu gabe, bertso saioetara luzatzen dutenak ere badirelako, bailarako bertso eskolen laguntzarekin bertso doinuak hedatuko ditu lau haizetara Anartz Agirrek. Hau ere ostegunetan izango

da, lau astetik behin, albiste-giaren ondoren. Arrasate eta inguruetako bertso afari eta ekitaldiak zein eskolako bertsolari gazteen saioak hartuko ditu giltzarri Anartzek.

## MAGAZINA

Bertsolaritza baino osasun kontuak, astrologia, sexualitatea, landare zaintzaren sekretuak eta eskulanetako jakingarriak izango dituzte nahia-go batzuek. Eta bereziki horientzat pentsatuta dago *Magazina* programa, Arantzazu Lagunillak aurkeztuta, asteartero ikusgai izango dena, gaueko 21:30ean. Programa hau grabatzeko Mondragon Hoteleran eraman ditu telebista kamerak ATBk.

## SOINUZ BLAI

Gazte ugarik grina berezia sentitzen dute musikarekiko, eta gurari hori asebetetzen saiatu nahi dute Edu Abasolok eta Miren Gonzalezek *Soinu-uz Blai* musika saioarekin. Programa hau Ostantz tabernan grabatuko da, eta kontzertuak eta bideo klipak eskaintzeaz batera, asteburuko kontzertuen zehaztasunak ere emango dituzte, ostegun eta ostiraleroko, 22:15ean. Saio hau Tele 7rekin elkarlanean egiten du Arrasate Telebistak, eta Barakaldon ere ikusten da.

## MUSIKLASIK

Musika xuabeagoaz gozatzen dutenak ere badaude, eta horien belarrientzat gozagarri operak, abesbatzak, orkestrak eta Arrasate Musikaleko ikasleen saioak hurreratu nahi ditu Iñaki Olaizolak, *Musiklasik* programarekin. Hau ere oste-



Marijok eta Ibanek egingo dute programazio berriaren aurkezpena.


n!



Miren Gonzalez



Aintzane Gardoki



Anartz Agirre



Arantzasu Lagunilla

gunetan, lau astetik behin, albistegiaren segidan.

**ENPRESAK**

Hileko azken ostegunetan, berriz, enpresa eta kooperatiben arloa gertutik ezagutu nahi dutenek izango dute hitzordua, *Ekilan*-en. Alberto Gorritiberea Herri Irratiko esatari eta kazetari ezagunak aurkeztuko du saioa.

**AURREZ AURRE**

*Aurrez Aurre* saioak, izango du lekurik denboraldi berrian ATBn. Aurtenera pertsona ezagunak elkarrizketatuko ditu aurkezleak. Saioa gaueko

21:30ean izango da asteartetan.

**MONDRASPORT**

Eta kirolzaleek ere alboan izango dute Itxaro Zubillaga, astelehenero gaueko 21:30ean, Arrasate eta inguruko herrietan kirolaren inguruan jazo den guztiaren berri emateko. Asteburuko partiden kirol emaitza eta jardunaldiei buruzko erreportajeaz gain, kirolariak ere hurreratuko ditu Itxarok platora, solasean aritzeko.

**JOLASPLAST**

Eta jolas nekeak arinak direlako, Mikel Lizarralde jolas egingo du asteartero *Jolas-*

*plast*-en, Maitane Ruiz de Munain eta Garazi Carrillo laguntzaile dituela. Hiru lagunek neurtuko dituzte indarrak beste hiruren kontra, eta azkartasuna, abilezia eta adimena erakutsi beharko dute. Zuk ere Mikelekin batera solasean aritu nahi baduzu, 943 71 23 95 telefonora hots egin besterik ez duzu. Hori gutxi balitz, Leire Eraña ipuin kontalariak ere hainbat ipuin eskainiko ditu astero.

**BERRIAK, BERRIZTUTA**

Dekoratu berrian emango ditu Mainer Osak Arrasate eta inguruko herrietako albisteak,

egunero 20:00etan zuzenean eskainiko den albiste saioan. 20:30ean eta 21:00etan errepikatu egingo da albistegia. Tarte berriak ere irekiko dira: Internet, urteurrenak, elkarrizketak, *Arrasate Press*... izango dira tarte horien giltzarri, eta eguraldia eta agenda ere aintzat hartuko dira. Astelehen eta ostiraletan, gainera, Marijo Deogracias kazetariak kirol tarte aurkeztuko du. Albistegiaren aurrerapeña ere izango da, eguerdiro, 13:30ean. Horretaz gain, aste osoan hizpide izandako gai pisutsuenak ere jorratuko dira *Astebetean*, ostiraletan, 21:30ean.

Programa horiek osatuko dute programazio berria, eta programazio horren aurkezpena Iban Gonzalezek eta Marijo Deograciassek egingo dute, irailaren 30ean, gaueko 21:30ean.

**MARITXU KAJOI**

Maritxu Kajoi egunerako ere saio bereziaz prestatu du ATBk. Unai Iparragirre ETBko aurkezle arrasatearrak izango du kaleko giroa pantaila txikian islatzeko ardura. Urriaren 2an izango da hori, 14:30ean.

Urriaren 1ean, baina, aurreko urteetako Maritxu Kajoi eguna biazarazteko parada ere izango da, arratsaldeko 19:00etan lehenik eta 21:30ean gero.

Bistan denez, lorerik ederrera igartzen ez dena izango da udazkenean. Eta zein den hori? ATBk dakarrena. Zeuk usaindu bestela!

Mainer Osa



## ANDALUZIA GOGOAN

Asteburuan zehar Euskal Herriko zentru andaluziarren X. topaketak izan ziren Mondragoen. Euskal Herriko andaluziarren federazioa osatzen duten 11 zentruen ordezkariak Arruena parkean izan ziren. Andaluziako doinu eta zaporeak, nagusi, beraz, Musakola alde hartan.



## BIKOTE EGUZKITSUA

Edurne Unamuno eta Jose Migel Erkiaga abuztuaren 28an ezkondu ziren. Tunezen izan dira ezkon bidaian. Bikote bitxia da hauxe, ordea. Jose Migel zesta punta jokalaria da, ondorioz, datozen sei hilabeteetan Orlandon biziko dira eta beste seietan, hemen. Ez dago batere gaizki pentsatuta, aizue. Konturatu bazarete, urte guztia udaran pasatu dute!!! Zorionak lagunengatik!

**A. T. B. TAXI**  
Alliance Transport Bergerac Taxi  
**05.53.23.32.32**  
3 Voitures climatisées à votre service.  
- English speaking -  
FAX: 05.53.08.77.69 - E-Mail: a.t.b.taxi@wanadoo.fr

## ATB PARISEN

A zein ezaguna den ATB mundu zabalean! Begira-begira, Parisera joan eta taxi bat hartuz gero, hantxe dago ATB! Hau bai, hau, telebista hedatzea, ezta?

## PRINTZEAREN AZUKRE TONTORRA?

Xabier Euskitzek eta Klaudio Landak *Sorginen Laratza* ETBren saioan esan zutenez, printzea (Espainiakoa ote?) neska euskaldun batekin dabil, ilehoria eta garaia bera, familia onekoa... Izena ere aipatu zuten: gure Anne Igartururu!



**M** Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**ARENAZA**  
Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07

 **MARKO-JARTZEAK**  
**ALDEDI**  
Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxes: 943 79 13 84

**beatriz**  
oinetakoak  
eta poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tel.: 943 79 14 33  
ARRASATE



## BEDOÑAKO JAKI GOXOAK BERGARAN

Bedoñako Bidasoro baserri-ko Kontxi Berezibar Bergarako barazki, fruitu, lore eta gazta lehiaketan

izan zen, hamabigarrengoz. Bera izan genuen Arrasateko ordezkari bakarra. Eutsi goiari!

## IZENAK

### Mariano Errasti

73, frantziskotar aramaioarrak Eguzkilore izeneko liburua eman du argitara. Bere haurtzaroan Aramaion bizi izan zuen nekazari giroko bizimodua azaltzen du liburuan. 1953a ezkerro Kariben bizi izan da. Kazetaritza, ikerkuntza historikoa eta literatura landu ditu batik bat.



Fagor Elektronikako 10 langile hauek Pirineo Frantseseko gailurrik altuenean izan ziren iraileko lehen asteburuan: 3.298 metrotra dagoen *Vignemale* mendian. Baina hau ez da egiten duten lehena. Lehendik ere beste sei eginak zituzten: Perdido, Hiru Erregeen Mahaia, Aneto, Taillon, Inferno eta Perdiguero.

Hauetxek dira mendizale sutsu hauen izenak: Gaizka Oruna, Imanol Mazarredo, Enrike Gomez, Roman Gonzalez, Rikardo Azurmendi, Pello Zabaleta, Luis Madina, Jabier Larrañaga, Julio Martine eta Oskar Unzurrunzaga.

## ARRASATEKO IÑURRATEGITARRAK



# LAURA

## ESTETIKA ZENTRUA

- Depilazioa argizari hotz edo beroarekin.
- Depilazio elektrikoak (BLEND metodoarekin).
- Aurpegiaren tratamenduak.
- Masajeak.

**Maritxutarako solariumean eta makilajeen prezio bereziak**

Uherkape kalea, 2 E1., ezk. • Tel.: 943 79 22 88



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 943 71 48 45 ESKORIATZA



Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea  
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE

## BERGARA


① Mariaren  
Lagundiaren CDa

Maria Lagundia Ikastolako abesbatzak, 200 Urte, Hamai-ka Kantu izeneko CD bat plazaratu du. 18 kantu batzen ditu, tartean, oraindik argitaratu bariko batzuk. Zenbait abes-titan Donostiako abesbatza batek eta Bergarako Orkestrak eta Bandak ere parte hartu dute. Konpaktoa Bergarako Etxepare-Bilintx liburudendan edo Larrañaga gozodendan eros daiteke, 1.500 pezetatan.

## ARETXABALETA

② San Migelak

Aretxabaletako San Migelak gaur hasiko dira 18:30etan txupinazoarekin. Larunbatean, berriz, goizean diana, txalaparta, haurrentzako herri kirolak eta bertsolari eta trikitaliak izango dira. Eguerdian,



herri bazkaria izango da, Aretxabaletako Gazte Asanbladak antolatuta. Arratsaldeko ekitaldien ostean, afizionatu mailako pilota partiduak jokatu dira. Egunean zehar, aeskularen eta produktu biologikoen azoka izango dira. Jaiekin amaitzeko, igande goizean kirolak izango dira eta arratsaldean, berriz, VII San Migel Mus Txapelketa eta umeentzako jolas-tokia daude aukeran.

## OÑATI

③ Jaiak

Oñatiko San Migelen usaina ere har daiteke. Larunbatean, Haurren Danborrada izango da eta baita kirol saioak ere. Domekan, berriz, erraldoiak eta buruhandiak kalejiran arituko dira. Ostera, asteartean Nagusien Danborradaren txanda izango da. Gogoratu, baina, Oñatiko San Migel-etan, urriaren 2ko asteburua dela egunik handiena.

# Loramendi kirolak

# %50

## Zapatilak

## Futboleko botak

# AZKEN EGUNAK

# 1.000

- Haurren arropak
- Prakak
- Sudaderak
- Nikiak

# 2.000



# KIROLA, NOR BERE BURUAREKIN GUSTURA SENTITZEKO TERAPIA EDERRENA

- Ordu-tegi zabala.
- Lehen mailako begiraleak.
- Azterketa medikoak, matrikularen barne.
- Talde mugatuak.
- Eskaintza motak: yoga, aerobic, body sculpting, aretoko dantzak, power dumbell (muskulazioa).
- Lurrun bainuak, doan.

**BAKARRIK  
EMAKUMEZKOENTZAT!!**

Gainera, gimnasioko bazkideek beherapenak dituzte punta-puntako **estetika zentru mistoaren** hainbat zerbitzutan.

## ESTETIKA ZERBITZUAK:

- Behin betiko depilazioa.
- Gorputz eta aurpegi tratamenduak.
  - Makilaje iraunkorra.
  - Mediku estetizista:
    - Dietak.
    - Barizeak.
    - Mesoterapia (Zelulitiaren aurkakoa).
    - Liposaketak.
  - Etab.

## ESKAINTZAK

- **Zutikako eta etzandako solariuma (dutxarekin).**

LEHEN: 10 SAIO + 1 doan = ~~9.000~~ pta.

ORAIN: 10 SAIO + 1 doan = 8.100 pta.

- **DANTZA IKASTAROA**

**Hasiera:** Urriak 9.

**Eguna:** Larunbatak, goiz eta arratsaldez.

**Modalitateak:** Tangoa, balsa, salsa, etab.

**Irakaslea:** Natalio Maiztegi.



LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA  
EMAKUME-GIMNASIOA

Bixente Ferrer kalea • ARRASATE

Tel.: 943 79 52 17

# UTZUNE URRIZALKI (FINANTZA ETA EMAKUME BATZORDEBURU)

## “Arrasateko emakume”

**Herri Finantzak eta Emakumea.** Horletzek dira Utzune Urrizalkiren batzordeak udalletxean. 28 urte ditu eta Enpresa ikasketak egin zituen ETEOn eta EHU. Santamasetako eta Maritxuko jai batzordeko kide izan da urte luzez. Orain beste bi ardura sendo ditu. Herriko diruak zaindu eta Arrasateko emakumeak elkartu.

— **Nolatan zu bezalako neska gazte bat, herriko diruen arduradun?**

— Ez dakit. Erabaki hori hartu zen. Ino Galparsorok urte mordo zeraman horretan eta ardura hori beste norbaiti emateko aukera zegoela ikusi zen. Aldaketa behar zen, hori baino ez.

— **EHren zerrendan aurkeztea erabaki zenuenean, honelako ardurarik izango zenuela pentsatu zenuen?**

— Ez, ezta gutxiagorik ere.

Batetik emaitzak, nahiz eta ni barruan nengoen jadanik, bestetik bakoitzaren ardurak. Hori gero erabakitzen den kontua da. Sartu eta gero ezin zateratzen eta...

— **Zein izango da zure lana, zehazki?**

— Oraindik sartu gabe nago Finantza batzordean. Lehenengo bi-hiru hilabeteetan Ino eta bion artean eramango dugu. Kreditu aldaketak daude eta berak lagundu behar dit. Lanari dagokionez, aurrekontuak begiratu, diru banaketa aurrekontuaren arabera, eskaerak dagoen diruarekin kontrastatu...

— **Ez dizu beldurrik ematen?**

— Bai, noski. Baina ez nago bakarrik, Ino ere hor dago. Urtebetean ez da ikasten. Lau urte ditut horretarako.

— **Zer esan dizu jendeak**

**finantzen ardura duzulako?**

— Lan ederra tokatu zaidala! Baina neuk ere horixe uste dut. Ardura handia dudala esan didate, baina ahaleginduko gara ondo egiten.

— **Emakume batzordeko buru ere bazara. Zein asmo duzu?**

— Bi lanak uztartu behar ko ditugu. Oraindik batzordea deitu gabe dago. Badakigu lan asko dagoela. Azken bi urteetan zer egin den eta zer egin behar den.

egin ikusita, lan asko dago egiteko. Emakume Kontseilua bultzatu nahi dugu, plana jarraitu eta lan taldeak zehaztu. Arrasateko emakume guztiak batu nahi ditut. Iaz, esaterako, Kontseilua desegin egin zen eta batzarretara bakarrik bi talde joaten ziren. Beste biak, atera egin ziren arrazoiak azaldu eta gero. Gure programan esan genuenez, talde guztiak nahi ditugu elkartu eta elkarlanean jarri.

— **Prest egongo zinateke Arrasateko lehenengo emakume alkatea izateko?**

— Oraingo ez. Lau urte barru esan dizuet, baina lau urte barru ere oraindik ikas-



“Ardura handia daukadala esan didate, baina ahaleginduko gara lana ondo egiten”

UA)

# zak batu nahi ditut”

teko asko izango dut. Gainera Txiron luzerako dugu.

— **Gazte asko zaudete udaletxean. Alternatiba izan daiteke?**

— Ez, jarraipena. Proiektu berari jarraituko diogu. Gazte gehiago behar da lanean segitzeko.

— **Zuek zarete, lau urte barru zerrendaburuak?**

— Ikusiko dugu lau urte barru zer gertatzen den.

— **Zertan aritu zara orain arte?**

— Urte asko egin ditut Santamas eta Maritxuko jai batzordeetan. Bizitza osoa daramat izkutuan, bestela sei bat urte izango da ari naizela eta oraingoz ez dut lagako.

— **Lizarra-Garaziko lehen urteurrena ez ospatzea “proiektua aurrera doan seinale” dela esan berri dute. Zer iritzi duzu?**

— Lizarra-Garazi ez da jarraitu behar den zerbait. Ekimen bat da, gatazka konpontzeko irtenbide demokratiko bat. Ona litzateke hor erabakitzen diren gaztak eta udal

ordezkarien biltzarretan erabakitzen direnak segitzea. Urtebetean gauza asko egin dira, baina ezin gara gelditu hor, aurrera segitu behar dugu.

— **Alderdi abertzaleak elkarrekin aurkeztu beharko lirateke Espainiako hauteskundeetara?**

— Ez dakit. Guk euskal nazio bat nahi dugu eta horrek Espainiakoak dira. EAJ aurkeztu egingo da, guk erabaki egin behar. Oraindik denbora dago zer egin erabakitzeko. Dena dela, ez dut uste denok elkarrekin aurkeztea bidera-

garria denik. Ikusi egin behar.

— **105 preso espetxez aldatuko dituztela eta, zer iritzi duzu horren gainean?**

— Euren legea bete behar dute. Euskal Herri osoak betidanik eskatu izan du hori. Sekulako ekimena izan dutelakoan daude, baina hori aspaldi egin beharrekoa zen. Gainera, euskal presoetarik asko kalean egon beharko lirateke aspaldi.

Ez da, eurek dioten bezala, “euren keinu” bat. Hori egin beharrekoa zen, aspaldiko eskaera zelako. ■

## “GAZTEAK ETA 2000. URTEA” X. ARGAZKI LEHIAKETA



Adela Lirón de Robles (Donostia)

### BI MAILA

- A) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak  
B) 19-35 urte bitarteko edozein

### SARIAK

- A) maila: (modalitatea bereiztu gabe)
- saria: argazki makina (reflex)
  - saria: argazki makina (konpaktoa)
- B) maila:
- zuri-beltzean
    - bildumarik onena: 75.000 PTA
    - argazkirik onena: 50.000 PTA
  - koloretan
    - bildumarik onena: 75.000 PTA
    - argazkirik onena: 50.000 PTA

Emakume Sailaren saria: 50.000 PTA

Lanak  
aurkezteko epea:  
URRIAK 8

ASA taldea



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Saila ■  
Emakume Saila ■

Argibideak Gazte Bulegoan

# Adi neska-mutikoak!

Aste honetatik aurrera orri berezi bat eskainiko dizuegu. Eskola kirola, hau da, Arrasate Kirol Proiektua (AKP) hizpide hartuko dugu eta zuek egiten duzuen jasoko dugu orri honetan.

Herriko 800 bat neska-mutiko arituko zarete AKPrekin kirola egiten asteburuero. Hori dela eta, astetik astera egiten duzuenaren berri izatea merezi duzue: emaitzak, hurrengo asterako partidak, kirol berriak, argazkiak...

**ZER EGITEN DA AKP-N?**  
6-13 urte arteko neska-mutikoak ari dira hemen. Adinaren arabera, egiten duten kirol maila ere berezia da. Adinari egokitutako kirola da.

Lehen eta bigarren maila-



Urriaren hasiko dira asteburuko partidak.

koek "psikomotrizitatea" egiten dute. Gorputzaren ezagupena, adierazpena, laterealitatea eta bestelakoak lantzen laguntzen die, dena jolasa erabiliz. Beste ekitaldien artean igeriketa eta mendizaletasuna

praktikatu ohi dute jeneralean.

Hirugarren eta laugarren mailakoek, berriz, "aurrekirola" egiten dute. Kirolarekin loturiko jolasak egiten dituzte eta larunbatero kirol horretan lehiatzen dira beste talde

guztiek. Jolasa eta lehia.

Bosgarren eta seigarren mailako ikasleek kirola sako-nago lantzen dute hainbat kirol landuz. Txapelketak jokatzeko dituzte eta kideen arteko harremanak sendotu.

## **EZAUGARRIAK**

AKPrekin ezaugarrietako bat da kirola euskaraz egiten dute-la. Azken batean, heziketa modu bat da eta bide batez euren arteko harremanak sendotzeko balio duen modu sanoa.

Hori dela eta, Arrasateko eta Aramaioko ikastetxe guztien proiektu bateratuaren berri emango dizuegu astero. Gogoratu, astero zuek, kirolari gazteenak, izango zarete orri honetako albiste iturri.



*Zatoz eta eman izena!*

## IDIOMASTER

1999/2000 IKASTURTEA

### HIZKUNTZAK:

- Ingelesa.
- Frantsesa.
- Alemana.

■ **Italiera (berria).**

- Jatorrizko irakasleak.
- Talde txikiak.
- Maila guztiak.
- Adin guztiak: Heldu, gazte eta umeentzako hasiera ikastaroak (6 urtetik aurrera).
- Ordu-tegi bereziak txandaka lan egiten dutenentzat.
- Cambridge azterketarako prestakuntza.
- Ikasturtearen hasiera: Urriaren 4a.

Otalora, 29 - behea • Tel.: 943 79 07 84 • ARRASATE

Born Jay taldeko zuzendaria

## ENEKO GARAI

*“Gehiago ezin dugu, diruz gaizki gabiltza”*

— **Zein izan da aurtengo emaitzarik onena?**

— Granadako Itzuliko etapa irabaztea. Espanian oso itzuli garrantzitsua da. Oso lasterketa zaila izan zen, gainera: ni bakarrik autoan, bizikleta apurtu... Horrezaz gain, Jon del Riok seguruenik Lehendakari Saria irabaziko du.

— **Aurten Born Jay taldeko azken denboraldia izango da. Zergatik?**


— Dirurik ez dagoelako, nahiz eta emaitzetan talde handien artean gabiltzan. Baina haien ondoan, geuk dugu aurrekontu txikiena. Bi babesle ditugu: Born eta Jay, bata holandarra eta bestea galiziarra. Bailara honetan badaude diru asko mugitzen duten enpresak, baina guk ezin izan dugu lortu euren laguntza. Urte txarra da. Gipuzkoan eta Bizkaian bina talde desagertuko dira. Kaiku taldea, esaterako. Afizionatu mailari ez zaio jarraipenik egiten komunikabideetan, batez ere telebistan eta horrek eragina du. Harrobia ez da zaintzen behar bezala.

— **Zer gertatuko da taldeko txirrindulariekin?**

— Txirrindulari gutxi ditugu eta horietatik 3-4k ez dute aukerarik. Gainerakoak beste talde batzuetara joango dira. Arrasateko Txirrindulari Elkarteak lasterketak antolatzen segituko du eta ni, berriz, euskal selekzioan ari naiz mekaniko lanean. Beraz, nik neuk guztiz ez dut lagako.

— **Nolakoak izan dira taldearen lau urteak?**

— Esperientziarik gabeko taldea ginen eta urtetik urtera hobetuz joan gara. Espainian ere eza-gunak egin gara. Fruiturik ere eman dugu. Ivan Sastrek esaterako, lehenengo bi urteak gurekin egin zituen. Aurten, berriz, Jon del Riok denboraldi bikaina egin du. Euskal Herriko talde guztiak bere atzetik ari dira, kontratatu nahian.



— **Nolako esperientzia izan da zuretzat entrenatzaile bezala aritzea?**

— Polita. Gure asmoa ez zen entrenatzailea txirrindulariei agintzen aritzea. Lagun taldea izatea zen asmoa eta gure artean ondo konpontzea. Dena dela, aritu garen egoeran ez dut jarraitu nahi. Hiru urterako zela esan geneun hasieran eta lau izan dira. Gehiago ezin dugu, diruz gaizki gabiltza.

— **Zaila da, beraz, diru laguntza lortzea?**

— Bai. Une honetan afizionatu maila profesional mailaren aurrekoa da. Profesional mailak zer egiten duen, horixe egin du afizionatu mailak ere. Geroz eta egitura sendoagoak dira eta denbora gehiago eskaini behar zaie. 30-40 milioiko aurrekontuak dituzten taldeak daude eta guk ezin diogu horri aurre egin.

— **Laguntzarik lortuz gero segituko zenuke?**

— Bai, aurrera egiteko ilusioa genuen, baina txirrindulariei gastuak ordaindiz. Kilometroak, bizikletak eta bestelakoak eurek ordaindu dituzte eta, besterik ezean, gastu horiek ordaintzeko lain bageneukan...

— **Nolakoak da afizionatu maila?**

— Gehienek uste dute noizbait profesioaletarako jauzia egingo dutela. Beste asko ondo pasatzeagatik ari dira eta horiek laga egiten dute. Ez dago horrenbeste loturarik taldearekin. Aurten hiru txirrindularik, esaterako, taldea utzi egin dute. Alde horretatik aurtengoa urterik txarrena izan da.

— **Zer da politena?**

— Itzuli batean sortzen den giroa. Zamora, Granada, Bidasoa, Araba eta Goierriko itzulietan izan gara eta taldekideen arten oso giro polita sortu da.

# Mondra Futbol Taldea



**Itziar Arrieta**  
(15 urte)  
atezaina  
1. urtea



**Sokoa Azkarate**  
(20 urte)  
atezaina  
4. urtea



**Maite Ormaetxea**  
(15 urte)  
atzelaria  
1. urte



**Larraitz Murrutxuketa**  
(21 urte)  
atzelaria  
8. urtea



**Rakel Modino**  
(17 urte)  
erdilaria  
1. urtea



**Izaskun Aranbarri**  
(17 urte)  
erdilaria  
3. urtea



**Maite Martin**  
(15 urte)  
erdilaria  
1. urtea



**Maider Etxebarria**  
(16 urte)  
erdilaria  
1. urtea



**Sulima Carabias**  
(14 urte)  
erdilaria  
1. urtea



**Araitx Etxabe**  
(15 urte)  
aurrelaria  
3. urtea



**Juli Martinez**  
(19 urte)  
aurrelaria  
5. urtea



**Maider Etxebarria**  
(14 urte)  
aurrelaria  
1. urtea


Errejonial mailan jokatzen dute. Joan den astean 8 eta 0 irabazi zieten Urki taldekoei. Aste honetan



Mariaga  
(21 urte)  
atzelaria  
8. urtea



**Maitane Gallastegi**  
(17 urte)  
atzelaria  
1. urtea



**Alaitz Murua**  
(16 urte)  
atzelaria  
3. urtea



**Ainhoa Gallastegi**  
(21 urte)  
erdilaria  
8. urtea



Maite Iturraran  
(15 urte)  
aurrelaria  
1. urtea



**Maite Iturraran**  
(15 urte)  
aurrelaria  
1. urtea



**Maider Heriz**  
(18 urte)  
erdilaria  
2. urtea



**Oihana Solupe**  
(15 urte)  
aurrelaria  
1. urtea



Jessica Lopez  
(16 urte)  
aurrelaria  
1. urtea



**Jessica Lopez**  
(16 urte)  
aurrelaria  
1. urtea



**Esti Loiti**  
entrenatzailea  
2. urtea



**Iratxe Vazquez**  
ordezkaria  
2. urtea

Elgoibarren arituko dira. Hamaika jokalaria berriekin osatu dute taldea.

## SASKIBALOA Kenci-Arrasate txapelkun




Deba Garaiko I. Saskibaloia Txapelketa Kenci-Arrasate eskuratu zuen. Oñati, Bergara eta Arrasateren artean jokatu zen joan den asteburuan, Iturripen. Ordu erdiko partidak jokatu zituzten. Lehenengo Bergarak irabazi zuen, 36 eta 33, Oñatiren aurka. Bigarrena Arrasatek Oñatiri irabazi. Azkenengoan, arrasatearrek 61 eta 43 irabazi zieten Bergarare. Kenci-Arrasatek urrian hasiko du denboraldia, Gernikan.

## ATLETISMOA Bergarako herri krosa



San Martinetako herri krosean, Bergaran, Arrasate Kirolak Atletiko taldeko gaztekoen artean, 1.200 m.ko lasterketan, Lander Errasti 4. izan zen. Gazte mailan, 3.800 m.tan Fernando Nogales 4. Senior mailan, 9.000 m.tan, Unai Elortza 17. izan zen eta Jose Mari Larrañaga, 37.

## XAKEA Nazioarteko txapelketa



San Andres Xake taldeko hiru xakelari aritu ziren igandean Bergarako Nazioarteko Xake txapelketa irekian.

Maixu handiak eta nazioartekoak aritu ziren tartean. 3,5 puntuna lortu zituzten. Lor zitezkeen puntuen erdiak.

## FUTBOLA Denboraldi hasiera



Errejonial mailako Mondrak bihar ekingo dio aurtengo denboraldiari. Atxabalpen izango da. Aurrez aurre Soralezko taldea izango dute Juanina Garairen mutilek. Norgehiagoka 17:00etan hasiko da. Infantilak ere asteburuan hasiko dira, Zarautzen. Beste taldeei dagokienez, hasi dute dagoeneko denboraldia. Errejonial mailako neskek, esaterako, 8-0 gailendu zituzten Urki taldekoak joan den astean. Ohorezko ligako Mondrak hirugarren partida jokatuko

du. Nahiko ahul hasi dute denboraldia hauek. Bigarren mailako gazteek derbia jokatuko dute asteburuan, Bergararen aurka. Ohorezko haur mailakoak Lengokoak taldekoak izango dituzte aurrez aurre eta bigarren haur mailakoek beste derbi bat izango dute: Almen-Arrasate.

## TXIRRINDULARITZA Del Rio, 3. Bergaran



Bergarako San Martin Txirrindulari Sarian hirugarren izan zen Born Jay taldeko Jon del Rio. Lau segunduko alde aterazio Iban Latasak Telecom-Bagordi taldeko txirrindulariak del Riori. Lehendakari txapelketan aurrean doa Jon eta denboraldia amaitzeko bi lasterketa baino ez dira falta oraindik ere.

Denboraldi bikaina egin dutolosarrak. Hogei aldiz lehenengo bosten artean sailkatu da. Hori dela eta, hainbat talderen eskaintza jaso du datorren denboraldirako. Dirudieenez, ordea, oraindik ez du zein talderekin joango den erabaki. Badu astirik.

Asteburu honetan denboraldia amaituko dute Oñatin, San Migel sarian. Lehendakari sariko azken lasterketa da.

Born Jay taldekoek, Euskalduna sariko azkenengo lasterketan hartuko dute parte, larunbatean. Laukizen izango da hori.

Del Riok 12 puntuko alde ateratzen dio bigarrenari Lehendakari Txapelketan. Baina gauzak ez daude erraz. Izan ere, bigarren sailkatua Olarra taldekoa da eta bi taldekide ditu berarentzat lanean.

## ARTZAIN TXAKURRAK Plazaola 5.

Nazioarteko Artzain Txakur txapelketa jokatu zen igandean Oñatin. Abadiñoko Joxe Urien, Euskal Herriko eta Bizkaiko artzain txakur txapelketa gailendu zen oraingoan ere.

Jesus Mari Plazaolak ezin izan zuen joan den astean Garain egindako lana hobetu. Lehenengo proba gaitu zuen, baina bigarrenen hirutan kosk egin zien ardiei. Azkenean, beraz, Jesus Mari Plazaolak bosgarren amaitu zuen nazioarteko txapelketan.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**  
**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**  
**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



# Euskal dantzak


**Hamabost urtetik gorakoei zuzendua**

- **Iraupena:** Urriaren 8tik abenduaren 17ra
- **Ikastaro egunak:** Ostiralero (15 ordu)
- **Ordutegia:** 19:00 - 20:30.
- **Matrikula:** 1.000 pta.
- **Tokia:** Lore Gazteak-en egoitzan.

**IZENA EMATEA:**  
Gazte Bulegoan  
Tel.: 943 77 00 65



ARRASATEKO UDALA  
Gazteria Salla ■



# Irrati ikastaroa


**Erredakzioa eta esataritza**

- **Noiz:** Urriak 6
- **Ikastaro egunak:** Asteazkenero (20 ordu)
- **Ordutegia:** 18:00 - 20:00
- **Matrikula:** 4.000 pta.  
(Ikasle eta langabeentzat 2.000 pta.)
- **Tokia:** Arrasate Irratian

**IZENA EMATEA:**  
Gazte Bulegoan  
Tel.: 943 77 00 65



ARRASATEKO UDALA  
Gazteria Salla ■



# Arrasateko Txistulariak indartuz

Arrasateko txistulariek elkar-  
tzea eta talde bat osatzea era-  
baki dute. Horrela, abesti  
berriak prestatu nahi dituzte.  
Saio duinagoak egitea da txis-  
tularien helburua.

Iñaki Barrena txistulari  
taldeko partaideak adierazi  
digunez, "txistua indarra gal-  
duta egon da urteetan. Dena  
den, zerbait boladan egoteko  
lan egin behar da. Modak sor-  
tu egiten dira".

## TOKI FALTA

Hamahiru urtetik hogeita bos-  
tera bitarteko hamabi bat lagun  
elkartu eta lehenengo entse-  
guak egiten hasi dira, dantza



Arrasateko Txistulariak San Juanetako Salbean.

taldearen lekuan. Iñaki Barre-  
nak aitortu eran, duten arazo  
handiena entseguak egiteko

toki falta da: "dantza taldeen  
biltegian egiten ditugu entse-  
guak. Ez da beste tokirik iza-

ten, uneoro dantza taldeak iza-  
ten baitira. Oso saturatuta  
dago toki hori. Dena den,  
musika etxe berriak behar  
bezalako leku bat emango  
diguten esperantza dugu".

Arrostitz, Txikitxu eta  
Lore Gazteak dantza talde-  
tan eta Arrasate Musikalen  
ikasitako txistulariak hartzen  
ditu bere baitan Arrasateko  
Txistulari taldeak. Arrasaten  
txistuak zuen egoera tamal-  
garria eta erakargarritasun  
eskasa ikusita sortu da egi-  
tismo berria.

Lehenengo emankizuna  
Santamas jaietan egin nahi  
dute txistulariek.

## Goikoetxeak ondutako meza Aramaion

Aramaioko Bizente Goikoe-  
txea Abesbatzak On Bizente  
Goikoetxea aramaioar musi-  
kari handiaren "Meza Sol  
Nagusian" kantatuko du lehe-  
nengo aldiz igande eguer-  
dian. Emanaldia Toursko San  
Martinen elizan izango da,  
Aramaion.

On Bizente Goikoetxeak  
orain 100 urte ondu zuen

meza, 1899. urtean Aramaion  
egin ziren Lore Jokoetarako.  
Dena den, meza ez zen orduan  
estreinatu. Alkate ohi libe-  
ralzale izan zuen aita, eta hura  
hil eta hamalau urtera, ara-  
maioarrek semeari, Bizente-  
ri, ordainarazi zioten aitaren  
kontrako gorrotoa, haren  
meza kantatzea debekatuz.

Ehun urte geroago, Goi-

koetxearen lana berreskura-  
tu eta izen bereko abesbatzak  
kantatuko du, Bizente Goi-  
koetxeak egin eta Sabin Sala-  
berrik moldatutako lana.

Igandeko estreinaldian  
Gasteizko kontserbatorioko  
orkestraren eta Samaniego  
abiesbatzaren laguntza ere  
izango du Bizente Goikoetxea  
abiesbatzak.

## SEME KUTTUN

13:30ean Bizente Goikoetxea  
abiesbatza ere Herriko Seme  
Kuttun izendatuko dute Uda-  
letxekeo batzar aretoan. Ara-  
maiko herria ezagutzera eman  
duten P. Pujana, S. Salaberri,  
P. Uribarren, JM. Velez de  
Mendizabal eta JM. Elejalde  
ere izendatuko dituzte Seme  
Kuttun ekitaldi berean.



Torrauzo, 9

Tel.: 943 78 19 56 eta 943 78 32 90

OÑATI

**Etxe Aundi**  
Hotela\*\* Jatetxea

### MARITXU GAUERA KO menu berezia:

- Kogolloen entsalada antxoekin
- Frituak aukeran
- Bakailaoa piperradan
- Entrecot-a plantxan hornigaiekin
- Nataz beteriko ostorea izozkiarekin
- Etxeko ardo gorria eta beltza
- Kafea

PANTXO ETA ARANTZA (MUSIKARIAK)

## “Hegoameriketako kantuak jotzen ditugu”

Argentina iparraldeko Salpa probintzian jaio zen Pantxo, eta betidanik kantatu izan du. Autodidakta da gitarrarekin. Txarangoa ere jotzen du. Orain biolina ikasten ari da, gainera. Arantza Elorriokoa da, eta zortzi urterekin hartu zuen gitarra lehenengoz esku artean. Duela hiru urte hasi ziren biak batera jotzen, eta irailaren 24an Garagartzako Belunen izango dira, 23:30ean.



— Non ezagutu zenuten elkar?  
— Pantxo Salpako ballet talde batekin etorri zen Europara lehenengo aldiz, txarango jole moduan. Urtebeteko bira egin ondoren, berriz etorri zen, musika talde batekin. Orduan ezagutu genuen elkar, duela zazpi urte. Bikote moduan kantuan, berriz, urtarrilean hiru urte egingo ditugu.

— Nola erabaki zenuten kantuan hastea?

— Argentinara bidaia bat egin genuen Pantxoren familia ezagutzeko. Bi kantu geneuzkan etxean gertatuta, eta abestu egin genituen. Handik bueltan, Gernikako taberna batetik deitu ziguten, eta gero kantuarekin segitzea erabaki genuen.

— Nolako abestiak dituzue?

— Hegoameriketako kantuak dira: boleroak, rantxerak, korridoak, tangoak, guadania... Bi gitarrarekin jotzen dugu, eta abestu ere biok egiten dugu. Hitzak, berriz, amodioari, pasioari, gorrotoari eta iraultzari buruzkoak dira gehien bat.

— Euskal talde edo bakarlariren kantuak jotzea pasa zaizue burutik?

— Noizbehinka egin izan ditugu kantu afariak, eta horietarako euskal kantu klasikoaren errepertorioa dugu: Benito Lertxundi, Mikel Laboa,

Imanol... eta gisakoen abestiak. Emanaldi horietan Ander Erzilla durangarrak laguntzen digu pianoan. Jendeari kantuen hitzak ematen dizkiogu, eta asko parte hartzen dute.

— Entsegu asko egiten dituzue?

— Ez gara musika emankizunetatik bizi, eta horrek asko mugatzen gaitu. Orain daukagun errepertorioa borobiltzeko asmotan gabilta.

— Zeuen kantuak sortzeko asmorik baduzue?

— Ez. Rantxera oso politik daude, eta horiek ezagutarazi nahi ditugu.

— Gustukoaren jotzen duzuen kantua?

— “El Rey”. Barrua libratzeko oso kantu aproposa da. Jende asko ezagutzen du, gainera. Baina asko dira gustura kantatzen ditugunak.

— Zer esan nahi du zuentzat abesteak?

— Jendearrekin harremanetan jartzeko modua da. Gure entzule leialenak jende nagusia izaten da. Bestalde, jende ugari ezagutzeko modua ere ematen du kantuak.

## aste gazte

### ■ KONTZIENTZIA ERAGOZPENA

• Intsumisioa edo objekzioaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, pasa zaitez Gazte Bulegotik eta paperak tramitatzeke behar duzun informazioa emango dizugu.

### ■ UNIBERTSITATERAKO AUTOBUSAK

• Ikasturte honetan Donostia, Bilbo edo Gasteiza egunero joan-etorria egin nahi baduzu, badaude autobus zerbitzu bereziak ikasleei zuzenduak. Argibideak, Gazte Bulegoan.

### ■ DIRU LAGUNTZAK

• 1999-2000 ikasturtean unibertsitatez kanpoko ikasketak egiteko diru laguntzak. Epea: urriak 15.

• 1999-2000 ikasturtean zehar unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko izaera orokorreko diru laguntzak. Epea: urriak 29.

• Eusko Jaurlaritzaren eskutik nekazaritza eta arrantza arloan prestakuntza eta ikerketak egiteko bekak. Epea: urriak 3.

### ■ LANA

• Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuak, sei fisioterapeuta lanpostu betetzeko lehia-keta deialdia egin du. Epea: urriak 10.

### ■ ANTZERKIA

• Gasteizko nazioarteko antzerki jaialdiaren programa daukagu. Interesatuz gero, pasa zaitez bulegotik eta informazioa emango dizugu.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

“Egin izan ditugu kantu afariak, euskal kantuekin”

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxebizitza jarri berria salgai Bergaran, Ibargarain. Tel.: 610 80 37 19. 18:00etatik aurrera.

• Etxebizitza salgai Arrasaten, Makatzena auzoan. Tel.: 943 79 38 96. Ion.

### 2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Aretxa baletan. Tel.: 943 79 90 24.

### 3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokagai, ikasleentzat, Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 617 21 73 45. Gaeuz deitu.

### 4. Errentan hartzeko

• Haur bat izango duen bikote batek etxebizitza behar du hilabete batzuetarako. Tel.: 616 28 68 93 eta 943 79 96 10.

• Bikote batek etxe bat behar du errentan hartzeko (haurrik gabe). Presazkoa da. Tel.: 943 79 67 11 eta 610 73 52 33.

• Arrasaten edo inguruetan etxe txikia eta merkea bilatzen dut. Tel.: 639 48 00 28.

• Etxe partikular baten gela alokatuko nuke. Tel.: 943 18 75 41.

• Bikote batek logela bateko etxe txiki edo teilatupea alokatu nahi du. Tel.: 616 45 23 99.

• Etxebizitza behar dut alokatzeko Eskoriatzan edo Arrasaten (beste batzuekin batera). Tel.: 943 51 42 89.

• Bikote arduratsua urtebete edo gehiagorako etxebizitza bila dabil, errentan hartzeko. Tel.: 943 77 18 23.

### 5. Etxeak osatzeko

• Logela bat alokatuko nuke langilez edo ikasleaz osatutako etxebizitzan. Tel.: 943 67 25 05. Ane.

• Leioan etxebizitza osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 943 71 95 00. Kontxi, 08:00-17:00.

• Logela bat alokatu nahi dut erdialdean. Tel.: 943 79 87 59. Tere.

• Etxebizitza osatzeko lagun bat behar da Aramaion. Tel.: 943 77 04

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

98. Irene.

• Leioan pertsona behar da etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 08 49. Amaia.

• Bi neska euskaldun behar ditugu Deustuan (Madariaga kalea) etxebizitza osatzeko. 17.000 pta. Tel.: 943 79 58 22.

## GARAJEAK

### 10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Altamiran dagoen 59 m<sup>2</sup>ko lokala salgai. Tel.: 943 79 66 62.

### 14. Errentan emateko

• Lanean diharduen negoziaria (gozokidenda) alokatzen da Kontzeziño kalean. Tel.: 943 77 10 97.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Andra euskalduna prest umeak zaindu, plantxa egin eta etxeko lanetarako. Tel.: 943 79 37 68.

• Andra euskalduna gertu etxeko lanak egin, umeak zaindu edo pertsona nagusiak zaintzeko, arratsalde. Tel.: 943 79 07 73.

• Auto handia duen ospitale laguntzailea prest pertsona zaharrak eta gaixoak zaindu eta laguntzeko. Tel.: 609 77 01 33.

• Mutil bat prest buzonaketak edo edozein lan egiteko arratsalde. Deitu 943 79 11 46 edo 943 79 99 83 telefonoetara.

• Esperientziadun emakumea prest arropa lisatu edo plantxa egiteko. Tel.: 943 79 68 77. Alicia.

• Esperientziadun emakumea prest dago etxea garbitzeko. Tel.: 943 79 68 77. Mari Carmen.

• 23 urteko mutila lanerako prest. Informatikan ondo moldatzen naiz, erabilerari dagokionez. Tel.: 619 15 44 06. Fco. Jose Martinez.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Lanak, apunteak, era guztietako agiriak... ordenadorez pasatzen ditut. Tel.: 943 79 07 64 eta 619 15 44 06. Fran. 24 orduz.

### 18. Eskaerak

• 30 urtetik gorako emakumea behar dut pertsona heldua zaintzeko. Tel.: 629 26 39 45.

• Bordatuak egiteko esperientziadun pertsona bat behar da. Arrasate ingurukoa. Tel.: 943 79 10 43.

• Esperientzia duen jostuna behar da, Arrasate ingurukoa. Tel.: 943 79 10 43.

• Pertsona euskalduna behar dut lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 696 40 40 67. Ez bagaude, utzi mesedez abisua, telefonoa, etab.

• Pertsona bat behar da etxeko lanetarako, orduka lan egiteko. Tel.: 943 79 89-78.

• Ile apaindegi baterako pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 03 63.

• Neska bat behar dut umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 37 03. 19:00etatik aurrera.

• Pertsona bat behar da, ziklomotor gida baimenarekin, afalorduan pizzak banatzeko. Tel.: 943 79 45 64.

• Emakume edo ikasle bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko. Aramaion, gaeuz. Tel.: 616 99 86 09.

• Zerbitzari euskalduna behar da. Tel.: 945 44 50 86.

• Zerbitzariak behar dira jatetxe batean lana egiteko. Tel.: 943 78 35 26.

• Neska euskalduna behar da denda batean lan egiteko. Tel.: 943 76 60 16.

• Larunbatetan eta igandeetan Arrasate hotelean lan egiteko neska edo mutila behar da. Tel.: 943 79 73 22.

• Sukaldari esperientziaduna behar da prestatutako jakiak saltzen dituen tokian lan egiteko. Tel.: 943 77 06 12.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Ingeles eta OHoko eskola partikularrak emango nituzke euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 94 98.

• Ingeles Fililogian lizentziadunak ingelesko eskolak ematen ditu. Tel.: 616 45 23 99.

• Esperientziadun neskak DBHko eskola partikularrak ematen ditu. Tel.: 943 79 66 39.

• Ingelesezko eskolak ematen dira. Talde mugatuak. Tel.: 943 77 01 27. eta 943 79 24 59.

• Goi Mailako ingeniari-tza industrialeko matematika, fisika, kimika eta marrazki tekniko eskolak eman-go nituzke. Esperientzia handia. Tel.: 630 71 35 83.

• Pianoan lizentziadunak, pianoan erakusteko eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Tel.: 943 79 24 14.

## 21. Eskaerak

• Pertsona bat behar da DBH 2. mailako eskola partikularrak emateko. Tel.: 943 79 45 55. Jon.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• R11 bat salgai, egoera onean. ITV pasata eta urtebeteko seguruaz. Prezioa: 95.000 pta. Tel.: 943 77 16 00. Bulego orduetan.

• Opel Kadet Van diesela salgai. Egoera onean, ITV pasata eta urtebeteko seguruaz. Prezioa: 245.000 pta. Tel.: 943 77 16 00. Bulego orduetan.

• Kawasaki GPZ/400 salgai. Tel.: 943 73 18 72 eta 943 73 12 82.

• Suzuki 50 cm<sup>3</sup>, 10.000 km. egina, gida baimenik barik ematekoa. Salgai Tel.: 943 79 82 06.

• 1998an erositako motorra salgai, 50 c.c., 200.000 pta. Egoera onean. Tel.: 943 79 58 45.

• Yamaha XT 350 salgai. Txuri-gorria. BI-BJ. 11.200 Km. Kutxa, bi burubabes, giltzarrapoarekin. Prezioa: 375.000 pta. Tel.: 607 44 38 10.

• Yamaha XJ 600. Egoera onean eta ITVa pasatuta. Merkea, bi maleta opari. Tel.: 943 79 26 35. Eguerdietan gauean

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Artzain txakur alemanen arrazako txakurkumeak salgai. Pedigria dute. Tel.: 696 05 73 46.

• Kanpin guria salgai, egoera onean

eta handia. Sukaldea doan. Oso prezio interesgarria. Tel.: 943 79 56 06.

• GAC paseatzeko bizikleta salgai. Egoera onean eta oso merkea. Bi plater eta sei pinioi. Tel.: 943 79 56 06.

• Arropa lehorgailua salgai, aire beroa eta guzti. Ez du instalaziorik behar. Tel.: 943 77 18 41.

• Lanean ari den negozioa eta furgoneta salgai. Interesatuok deitu 656 72 24 53 telefonora.

• Spaniel-Breton arrazako txakur kumeak salgai. Interesatuok deitu 943 79 19 63 telefonora.

### 27. Erosi

• Bigarren eskuko piano bat erosi nahi dut. Tel.: 943 79 73 82.

### 29. Eman

• Hilabete bateko artzan txakurra oparitzen dut. Tel.: 943 79 17 51.

### 30. Hartu

• Panpinak behar dira lehenbailehen arte lan bat egiteko. Egoera onean bueltatuko dira. Deitu asteleheneretik ostegunera bitartean 670 30 02 69

telefonora. Maite.

### 31. Galdu

• Betaurreko graduatuak galdu nituen abuztuan. Granate kolorekoak dira eta funda beltz batean gordeta neuzkan. Aurkitu badituzte, deitu mesedez 943 79 93 63 telefonora. Isabel, eguerdian.

### 32. Aurkitu

• Betaurreko batzuk agertu dira Larra-gain kaleko garajejan. Tel.: 943 79 86 28.1

### 33. Bestelakoak

• Jar zaitez sasoiaren energia unibertsalaren bidez. Era guztietako gaitotasunak, estresa eta beheraldiak barne. Deitu konpromisorik gabe. Tel.: 943 79 45 74.


## HARREMANAK

### 35. Kontaktuak

• Emakume gazteak gizona ezagutuko luke lagun edo erlazio egonkor bat mantendu asmoz. Tel.: 639 23 59 70.

# Perkusio ikastaroa

Hastapen eta sakontze mailak



- **Irakaslea:** Iñaki Bruña.
- **Noiz:** Urriak 4.
- **Ikastaroak:** Astelehenero.
- **Tokia:** Gazteluondoko Aretoan.  
(SFX Ikastolan).
- **Ordutegia:** 18:00 - 21:00.
- **Prezioa:** 500 pta. eguneko.

IZENA EMATEA: Gazte Bulegoan (943 77 00 65) edo Iñaki Bruñari (943 79 80 25)



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Saila ■



**L** 960-61. denboraldian Mondrak Eibarren kontra jokatu zuen hirugarren mailan. 4-1 irabazi zuen herriko taldeak. Baina izan zuten

zailtasunik, ez pentsa. Izan ere, negua zen eta zelaia izoztuta.

Zutik daudenak hauek dira: Pablo Bergaretxe, Jose Luis Arenaza, Alejandro Ezkurra,

Fidel Berezibar, Iñaki Zaldua eta Jesus Urkia "Sebitas".

Makurtuta, berriz: Jose Luis Larrauri, Julian Errasti, Luis Lopez "Bonba", Javier Urkiola eta P. J. Aranburuzabala.

-----  
*Argazkia eta berriematea:  
Javier Urkiola*



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# Lore

LURRINDEGIA

Olarte, 10 • ARRASATE • ☎ 943 79 52 50

## MARITXU KAJOI

eskaintza berezia  
**MAKILAJEA eta**  
**SOLARIUMA**

(etzana eta zutikakoa)

### MASAJEA

masaje terapeutikoa

kirol masajea

osteopatia

kinesiologia



### KABINA

gorputz tratamendua

aurpegi tratamendua

drenaje linfatikoa

depilazio elektrikoa

KORA O'NEAL

Ayer

HR

CLARINS  
PARIS

BIOHERM

VALMONT

# HIZKUNTZEN MUNDUA

**Matrikula  
Epea Zabalik**



Informa zaitez orain !

- ▶ Hizkuntza eta maila guztiak.
- ▶ Ordutegi malguak.
- ▶ Mediateka zure esku dohainik.
- ▶ Haur, gazte eta helduentzat.
- ▶ Multimedia sistemak.

**CIM**  
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

**AHIZKE S. COOP**  
Avda. de Alava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)  
Tel.: 943 71 20 55 Faxa: 943 71 21 81  
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com  
http:www.cim-idiomas.com  
**Olakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPUZKOA)**  
Tel.: 943 71 60 00

**Florida, 8A - 01005 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)**  
Tel.: 945 15 01 55 Faxa: 945 15 01 56  
E-mail: gasteizbaibay@cim-idiomas.com  
**Zubieta, 26 - 20007 DONOSTIA (GIPUZKOA)**  
Tel.: 639 71 98 58  
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com  
http:www.cim-idiomas.com

**bai & by**

# iKKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

# Errealitate bihurtzen diren ilusioak



SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43  
BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

**FAGOR**